

Donostian, 2000.eko otsailaren 24 eta 25ean

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,
H. Knörr, buruordea, (24ko bilkuran)
P. Goenaga, idazkaria,
J. A. Arana, diruzaina,
P. Altuna,
M. Azkarate (24koan)
P. Charritton,
J. L. Davant,
X. Diharce,
A. Iñigo,
X. Kintana, (25ekoan)
E. Larre,
J. M. Lekuona, (25ekoan)
B. Oihartzabal, (25ekoan)
P. Ondarra,
Tx. Peillen,
P. Salaburu (24koan)
J. M. Satrustegi (25ekoan)
eta A. Urrutia euskaltzainak
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-
kudeatzailea,
R. Badiola, argitalpen eragilea
(hasieran) eta
J. J. Zearreta, ekonomi eragilea
(hasieran eta amaieran)

Donostian, Diputazioaren jau-
regian, 2000.eko otsailaren 24an eta
25ean bildu da Euskaltzaindia bere hile-
roko batzarra egiteko. Ostegunean, arra-
tsaldeko lauetan eman zaio hasiera bilku-
rari. Parte hartu dutenen izenak
ezkerreko zutabeen jasotzen dira. Ezin
etorria adierazi dute Xabier Kintanak,
Beñat Oihartzabalek eta J. M. Satrustegik
(24an); Miren Azkaratek, Henrike Knö-
rrek eta Pello Salaburuk (25ean); eta
Ibon Sarasolak (egun bietan).

● *Aurreko batzar-agiria onartzea.*

M. Azkaratek ohartarazi du *zine-
ma/zine* delako auziaz hartutako erabakia
jasotzerakoan oker bat dagoela, *zinema*
formari eman baitzitzaien lehentasuna.
Idazkariak onartu du oharra. Eta besterik
gabe, ontzat eman da agiria.

Bestalde, M. Azkaratek eskatu du
oharrak ahal dela posta elektronikoz he-
laraztea P. Telleriari eta, gero, honek den-
en ohar-zerrenda euskaltzain guztiei
igortzea. Ontzat eman da proposamena.

● *Euskaltzainburuaren hitzak*

Euskaltzainburuak Herri Aginteezikiko hitzarmen berria (testua karpetan dute eus-
kaltzainek) datorren hilaren 3an sinatuko dela azaldu du. Ekitaldia Euskaltzaindiaren
egoitzan izango dela.

Bestalde, Nafarroako agintariekin izandako bilkuraren berri eman du. M. Sanz
Nafarroako gobernuburarekin eta Yolanda Barcina Iruñeko alkate andrearekin bildu
dela Zuzendaritza eta dena ongi joan dela. Bilkurok hilaren 22an izan dira.

● *Eskuartekoak*

Trebiñoko herri-izendegiaz eskaria.

Trebiñoko udalak hartu duen erabakiaren berri eman zaie euskaltzainei. Akordio-
aren arabera, Trebiñoko Konderriko udalerria osatzen duten herrixken euskal izende-

gia burutzeko eskatzen zaio Euskaltzaindiari. Erabakia interesgarritzat jo du euskaltzainburuak eta Onomastika batzordea berehala hasiko da lanean erabaki hori gauzatu ahal izateko.

Informatikariaren kontratazioa.

Hautatze lana burutu ondoren, Euskaltzaindiak informatikari berri bat duela azaldu du euskaltzainburuak: Iñaki Kareaga jauna izan da aukeratua eta martxoaren 6an hasiko da lanean, Euskaltzaindiaren informatika arloa zuzentzen.

Euskal Herritar Unibertsala izendatzeko proposamena.

Urtero Eusko Jaurlaritzak egiten duen deia erantzunez, zuzendaritzak Camdessus jaunaren izena aurkezteko proposamena egin du. Baionako semea da eta oraintsu arte Nazioarteko Moneta Funtsaren zuzendaria izan da. Aho batez onartu da hautagaitza.

● *Hizkuntza arauak.*

Aurreko bileran zintzilik utzitako hitzak.

Zurgatu/xurgatu. Dirudienez, *xurgatu* forma da nagusi gaur. *Zurgatu* zerabiltenak ere *xurgatu*-ra pasatu dira azken aldian. Adieretan ere ez dago bereizketa handiegirik. Horrenbestez, *xurgatu* onartzea erabaki da oraingoz. Gero ikusiko da ea *zurgatu*-ri lekurik egin behar ote zaion.

Zitara/kitara. Lehen *kitara* erabiltzen zen (Orixek, Zaitegik eta abarrek), baina gero *zitara* nagusitu da, Bibliaren itzulpenetan beretan ere. *Zitara* forma jasotzea erabaki da, hortaz.

Udal barruti dela eta, A. Iñigo jaunak aurkeztu du prestatutako txostena. A. Urrutiaren aburuz, hitz hori zertarako erabiliko den argitu behar da lehenbizi: 'término municipal', 'distrito municipal' ala zer. Horrelako hitz elkartuak sortzeko gramatika-oztoporik ez badago ere, terminologia kontua denez eta hau argitzea Euskaltzaindiari baino areago beste batzuei dagokienez, eztabaida luzearen ondoren, *udal* hitza soil-soilik ematea erabaki da.

Hiztegi Batuaren berrikusketan egindako aldaketen berri ematea eta eztabaida.

Miren Azkaratek eman ditu zenbait azalpen. Herri izenak eta hizkuntza izenak erantsi zaizkio zerrendari. Bestalde, zerrendaren formatua ere bateratu egin da. Azkarate andreak bereziki Onomastika batzordekideei eskatu die herri eta hizkuntza izenok ongi kontrolatzeko, badaezpada ere.

Egin diren bestelako aldaketa sistematikoen berri ere eman du.

Ondoren, forma jakinetan egindako aldaketa nabarmenenak azaldu ditu:

Aaiundar zerrendatik kendu da.

Abelazkuntza berrikustea proposatzen da zerrendan. Dagoen bezala uztea erabaki da azkenean.

Adiakatu sarreran aditz direnei ezartzen zaizkien oharrak gehituko zaizkio.

Adur hitza zerrendan agertuko da bere bi adierekin.

Ahaire-ri Zub. oharra erantsiko zaio *Ipar.*-en orde.

Akeita-ren sarrera honela uztea erabaki da: **akeita** g.g.er. 'kafea'.

Aldeztu ('defenditu/defendatu') aditzari ere leku egingo zaio.

Almaatar hitza kendu egingo da.

Andare/anddere/andere hitzen gainean izandako eztabaida honela ebatzi da: *and-dere* forma bigarren itzulirako utzi da. **Andere** *Ipar.* 'andrea'. Eta **andare** *Heg.* 'pan-pina'.

Arrastiri hitza *Ipar.* marka soilarekin utziko da.

Arto-ren azpisarrera gisa ageri diren hitz elkartuetan *arto*- forman ematen da lehen osagaia. Zalantza agertu da ea *arta*- forman ere eman behar ote liratekeen, sinonimo gisa edo. Gauzak dauden bezala uztea erabaki da.

Atzarri hitza berrikustekotzat emana zetorren zerrendan. Eztabaidaren ondoren, honela emango da: *atzarri* 1. aditza; 2. izond. *Atzartu*, berriz, izond. soil gisa emango da. *Izarri* eta *itzartu* hitzekin ere modu berean jokatuko da.

Baltiko hitza "izond." oharraz horniturik emango da. Adibideak ematen hasi eta "Itsaso Baltikoa" ematea ez du oso egoki ikusten zenbaitek. Eztabaida piztu da, baina azkenean bere horretan uztea erabaki da, izenondoa dela aditzera emanaz.

Bereizi/bereiztu formen arteko lehia bide zorrotzetik erabaki da: bereiztu* e. **bereizi**.

Berpiztu-ren aditzoinaren forma *berpizt* ala *berpitz* erabaki beharra aldarrikatzen da zerrendan. *Berpitz* forma onartu da.

Bihurdikatu-ren parean izen gisa ematen den *bihurdika* hitza adizlagun ere ba ote den galde egiten du M. Azkaratek. Iparraldeko euskaltzainen arabera, ez da. Beraz, ez da hori aipatuko.

Deitura/abizen bikotea dela eta, honako erabaki hau hartu da: **abizen** 'pertsona deitura' gisa emango da eta *deitura* sarrera, berriz, inolako oharririk gabe.

Derrigor eta beronen 'famiako' hitzei buruz ere luze joan da eztabaida. Honela emango da: **derrigor** *Heg.* h. **baitezpada**, **nahitaez**. **Derrigorrean** *Heg.* h. **behartuta**. *Derrigorez** e. **derrigorrean**. **Derrigorre(z)ko** *Heg.* h. **baitezpadako**, **nahitaezko**.

Deserritu/deserriratu auziaz ere izan da eztabaida. Baliteke *deserritu* forma batzere partizipio gisa erabilia izatea. Kontu hau urrenborako argitzen saiatuko dira batzordekoak.

Desterratu, dagoen bezala utzi da.

Egurketa sarreran, batetik, *Ipar.* eta *Naf.* dela adieraziko da. Bestetik, 3. adieran ('egur pila') iz. kategoriakoa dela argituko da.

Elikapen hitzaren berri nola eman eztabaidatu da ondoren. Hona hemen hartutako erabakia: **elikapen** 'elikatzea'.

Errebista sarreran "1 ikuskapen" kendu egin dute zerrenda prestatzaileek. Bigarren itzulirako uztea erabaki da adiera horren kontua.

Ezkonanaia, *ezkonarreba* eta *ezkonahizpa* ageri baitira zerrendan, Urrutia jaunak *ezkon neba* ere erabiltzen ote den ikusi beharko litzatekeela dio. Hurrengorako saiaturik da begiratzen.

Bestalde, *astebete* hitza dagokion lekuan sartzea onartu da. Eta *biao* hitzari, sinonimo gisa, *siesta* hitza ezarriko zaio alboan.

Bidaia aditzaren erregimena ere argitu da: *du* aditza dela esango da.

Butroi hitzaren sinonimotzat emango da *perta*.

Dejeneratu eta abarren grafia berrikusi beharra azpimarratu du M. Azkaratek. Hurrengo bilerarako eskuetan izango dute euskaltzainek *g/j* grafien arazoa duten hitzen zerrenda. Hori buruz erabakitzen denak bere eragina izango du ahoskerari buruz emandako arau eta gomendioetan.

Eiretar-i *irlandar* ezarriko zaio sinonimotzat.

*Erreket*e (soldadua) hitza eranstea ere onartu da.

Smokin sin. *smoking* eranstea dela eta, hasierako "=" ikur guztiak orain "sin." bihurtzea eztabaidan jarri da, zail egiten baita hitz beraren forma desberdinak sinonimotzat ematea. Horregatik, "sin." barik, agian hobe litzateke beste zeinuren bat bilatzea. Miren Azkaratek lehengo "=" zeinuaren ordain egokiagoa bilatzen ahalegin daitzela eskatu die euskaltzainei.

Esprint hitza sartu behar da.

Batzordeak *eskrupulo* ematen du zerrendan. Agian hobe, ordea, *eskrupulu*. Zernahi gisaz, hori bigarren egunean erabakitzeko utzi da.

Horrela amaitutzat eman da *A-E* zerrendarako proposatu diren egokitze, gehitze eta aldaketak.

Ondoren, ohargileek egindako oharrak hartuko dira eztabaidagai. Hori dela eta, gauzak behar baino gehiago ez luzatzeko, honako bi irizpide hauek onartu dira aho batez: a) gauza berriak sartzeko aukerarik ez da eman behar. Hots: bigarren itzulirakoak orain sartzea ez da bidezko; eta b) lehen eztabaidatutako gauzarik ez eztabaidatzea berriro.

Eta horrenbestez, zortziak eta bostean amaitutzat eman da lehenbiziko eguneko eztabaida-saio luzea.

Hilaren 25ean goizeko 10ak eta erdietan eman zaio hasiera bilkurari.

Nazioarteko hitzen zerrendaz

Zerrendari egindako oharrak aztertzen hasi baino lehen Urrutiak proposatzen du K letratik aurrerako zerrenda ere osatzea. Onartu da proposamena.

X. Kintanak egindako oharrak azertu dira lehenbizi:

Ampere eta *anperemetro* hitzak Kintanak, Ampère fisikariari zor zaion errespetuagatik *-m*-rekin ematea nahiago luke. B. Oihartzabalen ustez, beste hizkuntzetan gauzak nola diren ikusi beharko litzateke. Eztabaida labur baten ondoren, bozkatu da eta 13 botogatik *-n*-rekin uztea erabaki da.

Degeneratu eta antzekoak aurrerago aztertzeko utziak dira.

Destilatu-ren ordez *distilatu* nahi luke Kintanak. Botoetara jo da eta ez da onartu proposamena, hamabi boto izan baitira *destilatu* formaren alde.

Dosi-ren sinonimo gisa *harraldi* ezartzea bigarren itzulirako utzi da.

Eskrupulo/eskrupulu bikotearen aurrean *eskrupulu* forma hobetsi da. Zortzi boto izan dira proposamenaren alde.

Esoteriko-ren ondoan *esoterismo* ere sartzeari onartu da (9 boto izan ditu alde), baina *exoteriko* antonimoa sartzeari ez da ontzat eman.

Urrutiaren zerrendan ageri den *etimon* baino nahiago luke ohargileak *etimo* forma. Bozkatu ondoren, *etimo* hartzea onartu da: 9 boto izan ditu forma honek alde, *etimon-ck* sei izan dituen bitartean.

Flautista kentzeko proposamena ez da onartu.

Kantziler baino egokiagozat dauka Kintanak *kantzelari*. Ez da onartu proposamena: hamar boto biren kontra.

Urrutiaren zerrendan ageri den *klabier* hitza ez da, Kintanaren aburuz, hain naioartekoa. Bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Konkurrentzia eta *lehiakidetz*a sinonimo ikusten ditu ohargileak. Ez da onartu proposamena. "Batez ere Ekon." oharra gehituko zaio hitz horri.

Kontralto-ren ordez *kontraltu* ezartzea ez da onartu.

Txomin Peillen jaunaren oharren eztabaidak, berriz, honako emaitza hau izan du:

Anonimo-ren parean, sinonimo gisa, *izengabeko* ematea ez da onartu.

Ez da onartu, *arkaiko* eta *zaharkitu* parean jartzea ere.

Azeleragailu hitza dela eta sortu den eztabaidaren haritik, Kintanak *azeleratu* hiztari behintzat leku egin beharko litzaiokeela esan du. Bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Autoritario hitzaz sortu da ondoren eztabaida. Charritton jaunak *larderia* hitzari *Ipar*. oharra kentzea eskatzen du. Oharra idatziz egin dezala eskatu zaio hurrengo egunerako. Nolanahi ere, *autoritario* hitza kendu ala atxiki behar den bozkatu da: bederatzire boto atxikitzearen alde, zortzi kentzearen alde. Gauzak horrela, bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Epitafio baino gustukoago du Peillenek *ilartitz*. Bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Esteta-ren parean *ederzale* ezartzea ez da onartu, ez eta ere *kontinental*-en parean *legorreko* ezartzea.

Bestalde, *estruktural* hitza zerrendatik kentzea erabaki da: 11 boto 2-ren kontra.

Urrutia jaunak ere aurkeztu ditu zenbait ohar “nart.” zerrendari buruz:

Adoptatu eta *adopzio* hitzen arazoa hurrengo bileran aztertzeko utzi da. Hitzen baten beharra ikusi da, baina beldur izateko da horrelako hitz bat hartuz gero, jatorrari bidea oztopa diezaiokeela. Sarasolari galde egingo zaio hurrengo bileran zergatik utzi dituen hitz hauek kanpoan.

Arpegio hitzari leku egitea ez da onartu.

Eskuadra zuzenduko da, zerrendan “eskudra” ageri baita. Bide batez, Kintanak *eskuaira*-ri buruzko argitasunak gehitzea nahi du. Ez da onartu.

Homonimo eta *antonimo* sartzeari onartu da. Baita *kolesterol* hitza ere. Nolanahi ere oharrak kontrolatu beharra ikusi da. Kasu honetan, adibidez, *Med.* oharra gehitzen bada, beste batzuetan ere gehitu beharko litzateke, *epilepsia*-rean, esaterako. Irizpide bakarrari eustea komeni da: Aduriz jaunari edo, agin dakioke lan hau egitea.

A-E zerrendetarako X.Kintanaren oharren azterketa.

Aberri eta *sorterri* sinonimotzat ematea ez da onartu.

Abesti eta *kantu*, eta *abestu* eta *kantatu* ere sinonimotzat eman beharrik ez da ikusi eta ez da onartu.

Abokatu-ren sinonimo gisa ematen diren *legelari* eta *legegizon* kentzea erabaki da: *abokatu* hitza bere soilean uztea erabaki da.

Adi egon-ekin batera *adi ibili* jartzea ez da onartu.

Agur hitzaren adiera argitu beharrik ez da ikusi eta, horrenbestez, ez da onartu oharra.

Ez da onartu *agure zahar* eta *atso zahar* gehitzea.

Ahal izan-i buruzko informazio gehiago eskatzen du ohargileak, *ezin*-ekin egiten den bezala. Ez da onartu.

Aio-ri esangura eranstea ez da beharrezko ikusi.

Aitzur, baserriko lanabesaz gainera, bizarra mozteko tresna ere badela adieraztea eskatzen du ohargileak. Ez da onartu eman.

Aiutu hitzari esangura eranstea ez da onartu.

Aizkolari sartzeari onartu da, baina *aizkol joko*, ez.

Ohargileak berak erretiratu ditu *aizto/ganibet* eta *aldundi/diputazio* hitzei buruzko oharrak.

Altxatu-ren ondoan *altzatu** e. *altxatu* sarrera jartzea ez da onartu: botoetara jo da eta hamaika boto izan dira zerrenda ez ukitzearen aldeko.

Amankomun eta *komun*, biak, maila berean sartzearen aldeko da ohargilea. Ez da onartu proposamena.

Amultsu hitza sartzea onartu da. Hala ere, *arrai*-ren adiera ematerakoan 'alaia' bakarrik utziko da, zerrendan zetorren 'amultsua' ezabatuta.

Amona mantangorri baino egokiagoztat dauka Kintanak *amona mantalgorri*. Ez da onartu.

Andre-ren parean *andra** e. **andre** ezartzea ez da onartu: hamaika boto seiren kontra. Honek ez du esan nahi Onomastikan erabiltzen diren *Andra Mari* bezalakoak zi-legi ez direnik.

Anana bigarren itzulirako utzi da.

Anitz-en kokagunea argitze aldera informazio gehiago eman beharrik ez da ikusi.

Antropologo hitza bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Apo hitzean *Ipar*. eta *Naf*. 'zapoa' eranstea ontzat eman da.

Aprendiz hitzari "batez ere *Ipar*." oharra kentzea erabaki da.

Arbolazain bigarren itzulirako utzi da.

Ardi-ri bigarren adiera gehitzea onartu da (9 boto alde, 3 kontra): 2 Bizk. 'arkakusoa, kukusoa'.

Argi-ren azpisarrera gisa *argi eta garbi* ezartzea ez da onartu.

Arkeologo bigarren itzulirako utzi da.

Arnasa sarreran *hitz elkarketako* behar du eta ez *hitzelkarketako*.

Arra-ren definizioa ematea ez da onartu.

Arrabio hitzaren inguruan eztabaida luzea piztu da, zein animalia izendatzeko erabiltzen den ez baitago argi, antza. *Salamandra sp.* erantsiko da, besterik gabe.

Hemen, ordu bietan, bilera eten egin da bazkaltzeko.

Arratsaldean, lauetan ekin diote euskaltzainek berriro lanari. Eta X. Kintanak aurkeztutako oharren eztabaidak segitu du.

Arroz hitzaren azpisarrera gisa, *arroz(-)esne* sartzea onartu da.

Artikulatu hitza bigarren itzulirako utzi da.

Ohargileak berak erretiratu ditu honako ohar hauek: *asiar*, *astrologo*, *astronomo* eta *atara*.

Atzamar sarreran ageri den *h. atzapar* ez da zuzena eta horren ordeztu 'hatza' azalpena emango da, besterik gabe.

Auma formaren ordeztu *aume* hobetsi da eta hala ematea erabaki.

Auzo-ri 3. adiera bat eranstea eskatzen du ohargileak. Bigarren adieran bertan iz. eta izond. dela adieraziko da.

Azaluskeria-ren parean *azaluts* nahiz *azal-huts* eskatzen ditu ohargileak. Bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Azpisarrera hitza sartzeari onartu da.

Aztiatu esangura eransteke proposamena ez da onartu.

Bainu(-)ontzi sartzeari ontzat eman da.

Baita soil-soilik ere erabil daitekeenez, hori nolobait aditzera ematea eskatzen du ohargileak. Ontzati eman da. Honela utzi da sarrera: *baita (... ere) / bai eta ... ere*.

Bar sarreraren "h. taberna, ostatu" eman beharrean honela jartzea onartu da: **bar** 'taberna, ostatua'.

Zerrendan ageri diren *barne luzego* eta *habearte*, biak, kentzea onartu da.

Behar izan-en erregimena argitzeko eskaria ez da onartu

Beharri Ipar. h. **belarri** ezarri beharrean *e. belarri* eskatzen du ohargileak. Ez da onartu.

Bela(-)ontzi sartzeari erabaki da.

Benda, beneno eta *bengantza*, zerrendan datozen bezala uztea erabaki da.

Bermatu sarreraren adierak eta adibideak atzekoz aurrera emanak ageri omen dira. Argiago uzteko, honela emango dira: 1 *da* ad. 'euskarri hartu, uste osoa izan' *ukondo- ez leihoan bermatu zen; Jainkoaren baitan bermatzen gara*. 2 *du* ad. 'berme eman': *erlijioak betiko bizitza bermatzen digu*. 3 *da* ad. 'saiatu' *berma hadi lana ongi egiten*.

Beroki bere horretan uztea erabaki da.

Betazpi eta *begi(-)zulo* sinonimotzat ez ematea onartu da.

Betun hitzarentzat bigarren adiera bat ('asfalto mota') gehitzea ez da onartu oraingoz. Bigarren itzulirako utzi da.

Biao sarreraren adibide bat gehitzea ongi ikusi da: *konde jauna biaoa egiten dago*.

Bien bitartean bi aldiz ageri denez, bigarrena kenduko da.

Bihoztoi dagoen bezala utziko da. Baita *bobina* sarrera ere.

Bitarteko sarreraren ageri den adibidean *hordikeria* behar du eta ez *ordikeria*.

Blindatu eta *blindaje* sartzeari ez da onartu.

Bortu-ren adiera gisa 'goi mendia' ezarriko da.

Brodatu eta *buru(-)orratz* dauden daudenetan utzi dira. Baita *buzkantz* hitza ere.

Canberrar ageri da zerrendan. Kintanaren arabera, *camberrar* onartu zen bere garaian. Hala bada, hala izan bedi.

Compact disc zerrendatik kentzea onartu da. Ordain gisa, *disco*-ren azpisarrera gisa, *disco trinko* sartzeari erabaki da.

Darwinista sartzea ez da onartu.

Zerrendan *epidermis* gehitu da, antza. Batetik hitz honek *-s* gabe behar lukeela dio ohargileak. Bestetik, *dermi* hitzak ere agertu behar omen luke. *Epidermi* ematea onartu da, forma horretan. *Dermi*, berriz, bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Desertu sarrera aldatzea ongi ikusi du batzarrak: **desertu** 'basamortua', besterik gabe.

Dinosauro hitza sartzea onartu da.

Disko formaren erabilera bultzatzeko, diska* e. **disko** sarrera gehitzea ongi ikusi da.

Disketa/diskete sartzea ez da beharrezko ikusi. *Ditxo* hitza ere ez.

Honako hitz hauek sartzea ere ez da onartu: *drogazale*, *drogazaletasun*, *droga-menpeko*, *drogamenpekotasun* eta *drogoso*.

Egur sarrera bere horretan uztea erabaki da

Entrenatu, *entrenatzaile* eta *entrenamendu* hitzak sartzeko proposamena ez da onztat eman.

Eki h. **eguzki** eman beharrean, egokiagotzat jo da bakoitza bere aldetik ematea, nahiz eta *eki* sarreran *batez ere Zub*. 'eguzkia' adierazi.

Elektrikari* e. **argiketari** sarrera eztabaidatu da ondoren, ohargilearen eskariz. Azkenean bozkatu da: hamar euskaltzain kentzearen alde eta bost atxikitzearen alde. Bigarren itzulirako uztea erabaki da azkenean.

Emigrante sartzea ez da onartu.

Enbusteria hitzari *Heg*. oharra gehitzea onartu da.

Entziklopedista hitza bigarren itzulirako uztea erabaki da.

Ereserki dagoen bezala uztea onartu da.

Eri-ren orde *erhi* formari leku egitea nahi luke ohargileak. Eztabaida luzearen ondoren, hala ere, oharra erretiratu egin du Kintana jaunak.

Errefrau h. **atsotitz** baino nahiago du Kintanak **errefrau** 'atsotitza'. Ez da onartu. Zernahi gisaz, B. Oihartzabal jaunak gogorarazi dio "“" zeinurik ez duten hitz guztiak erabilgarri direla euskara baturako. Eta kontu honek oso argi gelditu behar duela *Hiztegiaren* argitalpena egiten denerako.

Errege hitzaren deklinabideaz oharrik egitea ez da onartu.

Erregistro/erregistro auzia gainerako zerrendaren barruan erabakiko da.

Errez* e. **erraz** gehitzea ez da onartu. *Erromantze*, *erti*, *ertigintza*, *ertilari* eta *eskarmentu* dauden daudenetan uztea erabaki du batzarrak. Eskeini* eta eskini* sarrerak gehitzea ere ez da onartu. *Eskoladun* sartzea ere ez da onztat eman.

Eskolapio sartzea onztat eman da.

Eskolau sarrera kentzea onartu da.

Eskuarteko hitzari zerrendan ezarri zaion adiera, 'diru xehea', kentzea erabaki da.

Eskukada eta *eskutada* bi sarrera beregain gisa ematea onartu da.

Espantu zerrendan datorren bezala uztea onartu da. *Espektakulo*, berriz, zerrendatik kentzea erabaki da, *esperto* hitza bezalaxe.

Espia* hitz gaitzetsiarekin batera *espioi*, *espiatu*, *espioitza* hitzak sartzeko proposamena egin du Kintanak. *Espioi* hitza sartzea onartu da, baina gainerakoak ez.

Esplizitoki zerrendatik kentzea erabaki da.

Estasi, *estatika*, *ekstasi* eta abarrei buruzko auzia ekarri du berriro ohargileak euskaltzainen artera. Berriz ere luze joan da eztabaida, azkenean, Euskaltzaindiak bere garaian onartu zuena berresteko: ez da Kintanaren oharra ontzat hartu.

Estrainio bere horretan utzi da.

Etxadi-ri g.g.er. oharra gehitzea ontzat eman da.

Etxandre sarreran ematen den adiera desagokia da, nonbait, *etxandre* eta *etxekandre* ez baitira gauza bera. Horrenbestez, *etxandre* soil-soilik ematea onartu da.

Euskera* e. **euskara** gehitzea eskatzen du Kintanak, *erdera/erdara*-rekin hartu den bideari jarraituz. *Erdera** sarrera kentzea erabaki da, *erdara* soila utziz.

Exorzismo eta *exorzista* formen ordez *exortzismo* eta *exortzista* nahi lituzke ohargileak. Bozkatu da eta 12 euskaltzain agertu dira puntu honetan zerrenda ez ukitzearen alde, bi kontra eta bat zuri. Beraz, dagoen bezala utzi da.

Ezeduki eta *ezetsi*-ren esangura argitzeko proposamena ez da kontuan hartu.

Ezta ... ere-ren kasuan *baita ... ere*-rentzat onartu den bide bera aplikatzea onartu da: *ezta (... ere) / ez eta ... ere*.

Azkenik, *astrologo*, *arkeologo* eta abarrei buruz zerrenda bat osatzeko proposamena onartu da. Zerrenda hori begien aurrean duelarik, har dezake Euskaltzaindiak behar den bidea.

Azkenik, zerrenda berriak banatu zaizkie euskaltzainei. Horrela, hitz zerrenda osoa dukete eta baita batzordean egindako aldaketa-birmoldaketan zerrenda ere. Zernahi gisaz, A. Urrutiak eskari bat egin du, eztabaida arinago eta zuzenago eramate aldera: hurrengo bileran Sarasolak eta Azkaratek etortzerik ez badute, etor dadila behintat J. A. Aduriz jauna. Onartu da eskaria eta, nolnahi ere, martxoko bilerarako etortzeko eskatuko zaio Adurizi.

Eta horrenbestez, arratsaldeko zazpiak eta hogeian hil honetako bilera bikoitza amaitutzat eman da.

Euskaltzainburuak
Jean Haritschelhar

Idazkariak
Patxi Goenaga